

JANGELAKO ARAUTEGIA

- Euskara izango da komunikazio hizkuntza.
- Goizez bakarrik gaudenean Haur Hezkuntzako ikasleak (2, 3, 4 eta 5 urtekoak) beheko eraikuntzan jaso behar dira.
- Goizez bakarrik gaudenean Haur Hezkuntzako ikasleak (2, 3, 4 eta 5 urtekoak) beheko eraikuntzan jaso behar dira.
- Begirale bakoitzak talde baten ardura izango du ikasturte osoan zehar eta hiruhilean behin ebaluaketa orria emango dio ikasle bakoitzari.
- Mahai bakoitzak 4., 5. edo 6. mailetako ikasle laguntzaile bat izango du.
- Bazkaltzeko denboran ez da ozen hitz egingo.
- Inor ez da baimenik gabe mahaitik altxatuko.
- Janariarekin jolasten hasten badira (urarekin, ogiarekin,...) lehenengo botatakoa jaso beharko dute eta hurrengo egunean zatitxo bat emango zaie bakarrik. Ezetz esanez gero jangelara garbitzen geratuko dira.
- Ikasle batek zerbait nahita puskatzen badu (sardexkaren bat esate baterako) hurrengo egunean 1€ ekarri beharko dio ikasketa buruari.
- Jangelako orduetan (12:30 –15:00) DEBEKATUTA dago eskolako eremuetatik atera.
- Ikaskide eta jangelako begiraleei zein sukaldeko langileei errespetuz tratatuko diete. Horrela egin ezean eta falta 3 alditan errepikatzen bada familiari idatzizko 1. oharra bidaliko zaio. Jarrera berarekin jarraituz gero eta beste 3 alditan errepikatuz gero familiak 2. oharra jasoko du eta 3 egunetan ezin izango du jangelan bazkaldu. Familiak 3. oharra jasoz gero (beste 3 falta larriren ondorioz) jangelatik betirako kanporatua izango da.
- Gertaera oso larria bada OOGko Batzorde Iraunkorra bildu eta zer egin erabakiko du.